

Diruarena eta askatasunarena

Egunkaria, 1997-04-06: 3.

Diruarekin nahasita nabil azken aldi honetan. Dirua, pertsonaren zerbitzuan jarrita ari naiz pentsatzen. Zeren, dirua bera, bakarrik, ez da grazia duen ezer; diruak, pertsonen beharren bidez lortzen du bere funtzioa eta duintasuna. Baina, zenbaterainoko dirua da pertsonaren behar sozialen bidez digerigarri dena? Hau da sortu zaidan kezka. Kondeak sortu dit berau, egia esan: kartzelatik libratuko bada, 2.000.000.000 pezeta entregatu behar dizkiola juezari. Hau zenbat diru den ezin dut imajinatu ere. Zer egin ote du, bada, neuk irudi ezin dudan zerbait lortzeko. Kristo, orain gutxi, 13 diruan saldu dute, urtero bezala, eta Pazkoko oporretara joateko hain peaje garestia ordaindu behar! Dirua baloreztatu ote da, ala gizona beheratu! Bada hemen giza disfuntzioaren bat... Eta gonbaraketa honi begira nagoela, konturatu naiz, bat-batean, 2.000.000.000 horien beharrak zer esan nahi duen: Justiziak balioztatzen duen dirutza ez da Conde jaunaren balioa askatasunean, baizik eta Conde kartzelan preso! Hemen dago prezioa! A zer txoria! Askatasunean, agur, lurrinduko litzateke abian!!